MB3

MUSIKA BULEGOA SARIAK

2026

2026.06.04

# DEIALDIAREN OINARRIAK · BASES CONVOCATORIA

**BIARRITZ**
ATABAL
**19:00**

ANTOLATZAILEA
ORGANIZA

MUSIKA BULEGOA
Batzen gaituena.

BABESLE NAGUSIA
PATROCINADOR PRINCIPAL

LABORAL kutxa

BABESLEAK
PATROCINADORES

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA

LAGUNTZAILEA
COLABORA

Atabal BIARRITZ

# AURKIBIDEA

1. Musika Bulegoa Sariak
2. Nor aurkeztu daiteke?
3. Etxepare Euskal Institutua Musika Saria
4. EHMBE Ohorezko Saria
5. Publikoaren Saria
6. Hautagaitzen izen-ematea
7. Antolatzailearen eskubideak eta betebeharrak
8. Baldintza ekonomikoen klausula
9. Datuen erabilpena eta babesa
10. Sarien banaketa

# ÍNDICE

1. Los Premios Musika Bulegoa
2. ¿Quién puede presentarse?
3. Premio Etxepare Euskal Institutua de Música
4. Premio Honorífico EHMBE
5. Premio del Público
6. Inscripción de candidaturas
7. Derechos y obligaciones del organizador
8. Cláusula de condiciones económicas
9. Uso y protección de datos
10. Entrega de premios

01.

# MUSIKA BULEGOA SARIAK

Musika Bulegoa Sarien -MBS2026- hamargarren edizioak honako sari hauek banatuko ditu:

- **8 sari musika-lanentzat.**
- **Etxepare Euskal Institutua Musika Saria.**
- **Euskal Herriko Musika Bulego Elkartea Ohorezko Saria.**
- **Publikoaren Saria.**

Musika-lanei dagokien 8 sariak eta Etxepare Euskal Institutua Musika Saria, 2.000 euroko diru-saria eta Fernando Mikelarena “Baserri” eskultoreak diseinatutako eskultura batez osatuko dira.

Publikoaren Sariak 1.000 euroko diru-saria izango du.

EHMBE Ohorezko Sariak ez du diru-saririk izango.

01.

# LOS PREMIOS MUSIKA BULEGOA

En la décima edición de Musika Bulegoa Sariak -MBS2026- se otorgarán los siguientes premios:

- **8 premios a trabajos musicales.**
- **Premio Etxepare Euskal Institutua de Música.**
- **Premio Honorífico Euskal Herriko Musika Bulego Elkartea**
- **Premio del público**

Los 8 premios a trabajos musicales y el premio Etxepare Euskal Institutua de Música. contarán con una dotación en metálico de 2.000 euros y un galardón diseñado por el escultor Fernando Mikelarena “Baserri”.

El Premio del Público contará con una dotación en metálico de 1.000 euros.

El Premio Honorífico EHMBE no tendrán dotación económica.

02.

# NOR AURKEZ DAITEKE?

Euskal Herriko (1) sortzaile, interprete edo musikagileak -bakarlariak nahiz taldeak-, baldin eta euren lana jendaurrean (2) aurkeztu ba- dute 2025ko urtarrilaren 1etik 2025ko abenduaren 31rako epealdian.

Musika Bulegoko bazkideek, gehienez, **3 proposamen** aurkezteko aukera izango dute.

EHMBE-ko bazkideak ez direnak eta beren jarduera profesionala Euskal Herriko musika-sektorearen barnean garatzen duten eragileek **proposamen 1** aurkeztu ahal izango dute.

1. Oharra: Euskal Herrian jaioak edo bertan bizi direnak.
2. Jendaurrean aurkeztua izan dela ulertzen da, edozein medio erabiliz zein edozein formatutan egindako musika lanaren zabalkundea, beti ere, publi- koarengana iritsi den edo iritsi ahal izan denean. Mugatua geratzen ez den arren, ondorengoak sartzen dira horren barruan: zuzenean edo euskarri digi- talen bidez interpretatzea, jendearen eskura jartzea plataforma digitaletan edo webguneetan, doan edo ordainduta, espazio publiko edo pribatuetan, irrati-hedabideetan, podcast-etan, telebistan edo antzeko baliabideetan erreproduzitzea, kopiak edozein formatutan banatzea, fisikoa edo digitala, edo argitaratu den edozein lan grafikotan edo ikus-entzunezkotan sartzea.

Deialdi honetan musika-lanak onartzeko data zabalkunde-data izango da. Ez da onartuko, inola ere, lege gordailua eskatu edo lortu den eguna, ezta ere beste edonolako erregistro datarik: Jabetza Intelektualaren edo eta eskubideak kudeatzen dituzten erakundeetan egindako erregistro data, ezta bestelako izaera duen erregistro batean.

02.

# ¿QUIÉN PUEDE PRESENTARSE?

Cualquier creador/a, intérprete, compositor/a, ya sean solistas y/o agrupaciones musicales de Euskal Herria (1) cuyos trabajos hayan sido presentados públicamente (2) durante el periodo comprendido entre el 1 de enero de 2025 y el 31 de diciembre de 2025.

Podrán presentar un máximo de **3 propuestas** los y las socias de Musika Bulegoa.

Podrán presentar **1 propuesta** los agentes que desarrollen su actividad profesional dentro del sector musical de Euskal Herria y no estén asociados a EHMBE.

1. Nota: Nacidos o residentes.
2. Nota: Se entiende como presentación pública la divulgación del trabajo musical hecha por cualquier medio y en cualquier formato de manera que haya llegado o podido llegar al público. Esto incluye, pero no queda limi- tado, su interpretación en vivo o a través de medios digitales, la puesta a disposición del público en plataformas digitales o sitios web, sean de acceso gratuito o mediante pago, su reproducción en espacios públicos, medios radiofónicos, podcast, televisión o medios análogos, la distribución de copias en cualquier formato, físico o digital, o su inclusión en cualquier obra gráfica o audiovisual que haya sido publicada.

La fecha a los efectos de admitir los trabajos musicales en esta convocatoria será la de divulgación, y en ningún caso aquella en la que se haya solicitado o se haya obtenido el depósito legal o aquella en la que se haya registrado el trabajo en una entidad de gestión, en el Registro de la Propiedad Intelectual o en un registro de otro carácter.

# MUSIKA-LANEN TIPOLOGIA ETA IZAERA

- Idatzitako musika-lan bat.
- Disko oso bat edo EP bat.
- Musika-konposizio bat.
- Soinu-banda bat.
- Zuzeneko lanak: soinu-instalazioak, kontzertu zehatzetarako berariaz diseinatutako musika-produkzioak, estreinaldiak eta abar.

## Aurkeztu ahal izango dira:

- Euskal egileek konposatutako lanak, baita kanpoko ekoizleek edo artistek aurkeztu / interpretatu badituzte ere.
- Euskal Herriko nahiz kanpoko taldeek egindako aurkezpenak / interpretazioak, beste euskal egile batzuek (bizirik nahiz hilda daudenek) egindako edukietan oinarrituta.
- Euskal Herriko musikariek kanpoko sortzaileen lanen inguruan egindako interpretazioak.

Musika-jarduerarekin zerikusia duten arloetako profesionalek osatutako epaimahai independente batek emango ditu 8 musika-lanen sariak. Epaimahai hau EHM BEko Zuzendaritza Batzordeak aukeratuko du.

# TIPOLOGÍA Y CARÁCTER DE LOS TRABAJOS MUSICALES

- Obra musical escrita.
- Disco completo o EP.
- Tema musical.
- Banda sonora.
- Obras en directo: Instalaciones sonoras, producciones musicales diseñadas especialmente para conciertos específicos, un estreno, etc.

## Podrán presentarse:

- Obras compuestas por autores/as vascos, aunque la presentación / interpretación haya sido realizada por productores/as o artistas foráneos/as.
- Presentaciones / interpretaciones de formaciones vascas o foráneas cuyos contenidos correspondan a otros autores/as vascos de cualquier ámbito, vivos o no.
- Interpretaciones de músicos vascos de trabajos de creadores/as foráneos/as.

Los premios a los 8 trabajos musicales los otorgará un jurado independiente compuesto por profesionales de ámbitos relacionados con la actividad  musical y que seleccionará la Junta Directiva de EHMBE.

03.

# ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA MUSIKA SARIA

Sari honekin, euskal interprete bakarlari, talde edo konpositore batek 2025an euskal musika nazioartekotzean egindako lana saritu nahi da. Sari honetarako, era guztietako musika estilo eta korrontetan, euskaraz aritzen diren talde edo bakarlariak hartuko dira kontuan.

Etxepare Euskal Institutuak musika eta kultura arloko profesionalek osatutako epaimahai bat izendatuko du.

04.

# EHMBE OHOREZKO SARIA

EHMBE-k (Euskal Herriko Musika Bulegoa Elkarteak) Euskal Herriko musika-jarduerarekin lotutako pertsona edo erakunde bat sarituko du, ondorengo esparruren batean proiektu nabarmen bat garatzeagatik: formakuntzan, sentsibilizazioan, hedapenean, ekoizpenean.

EHMBE Ohorezko Sarirako proposamenak EHMBE-ren Zuzendaritza Batzordeak egingo ditu.

03.

# PREMIO ETXEPARE EUSKAL INSTITUTUA DE MÚSICA

Con este premio se pretende reconocer la labor de un/a intérprete solista, grupo o compositor/a vasco/a en la internacionalización de la música vasca en 2025. Para este premio se tendrá en cuenta a grupos o solistas que actúen en euskera, en todo tipo de estilos y corrientes musicales.

Etxepare Euskal Institutua nombrará un jurado compuesto por profesionales del ámbito musical y cultural.

04.

# PREMIO HONORÍFICO EHMBE

La asociación EHMBE (Euskal Herriko Musika Bulego Elkartea) concederá este premio a una persona o entidad relacionada con la actividad musical de Euskal Herria por el desarrollo de un proyecto destacable en ámbitos tales como: formación, sensibilización, difusión, producción.

Las propuestas para el Premio Honorífico EHMBE serán realizadas por  la Junta Directiva.

05.

# PUBLIKOAREN SARIA

Publikoaren Sariaren bidez, musikazaleek euren talde eta/edo artista gogokoena bozkatzeko eta aukeratzeko aukera izango dute.

Publikoak online emango du botoa Musika Bulegoak izendatu eta zabalduko duen webgune baten bidez. Horretarako, erabiltzaileak aldez aurretik erregistratu beharko dira. Publikoaren bozketa-fasea epaimahai profesionalaren lehen fasea amaitu ondoren hasiko da.

Botoa ematen duten pertsona guztien artean lau gonbidapen zozkatuko dira ekainaren 4ean Miarritzeko Atabal aretoan egingo den sari banaketa ekitaldirako. Antolatzailea irabazleekin harremanetan jarriko da bozka emateko izen-emate prozesuan partekatutako posta elektronikoaren bidez.

05.

# PREMIO DEL PÚBLICO

A través del Premio del Público, las personas aficionadas a la música podrán votar y elegir a su grupo y/o artista favorito.

El público votará online a través de la página web designada para la ocasión y que se difundirá públicamente desde Musika Bulegoa. Para ello, las personas votantes deberán registrarse previamente. La fase de votación del público comenzará tras el término de la primera fase del jurado profesional.

Entre todas las personas que voten se sortearán cuatro invitaciones para la gala de entrega de premios que tendrá lugar el 4 de junio en la sala Atabal de Biarritz. La organización se pondrá en contacto con la persona ganadora a través del correo electrónico facilitado durante el proceso de inscripción para la votación.

06.

# HAUTAGAITZEN IZEN-EMATEA

Hautagaitzak online aurkeztuko dira IZEN-EMATE ORRI honen bitartez, oinarriak argitaratzen diren egunetik 2026ko urtarrilaren 22ko 14:00ak arte. Data  horretatik aurrera ez da proposamenik onartuko.

Proposamen bakoitzarekin batera, erreferentzia digital bakarra bidali behar da. Musika eta/edo ikus-entzunezkoak kalitate egokia izan behar du, epaimahaiak balorazio- eta hausnartze prozesurako erabili ahal ditzan.

## Proposamenen berrikustea:

Aurkezteko epea amaitu ondoren, baldintzak betetzen direla egiaztatuko da eta, hala badagokio, beharrezko datuak aurkezteko eskatuko da, gehienez ere 3 laneguneko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

## Baztertutako proposamenak:

Kanpoan geratuko dira oinarri hauetan  ezarritakoa betetzen ez duten proposamenak eta/edo hirugarrenekiko betebeharrak dituzten proposamenak, baldin eta obra horren komunikazio publikoa eragozten badute, lehiaketaren garapenean zehar.

06.

# INSCRIPCIÓN DE CANDIDATURAS

Las candidaturas se presentarán online a través del siguiente FORMULARIO a partir de la fecha de publicación de las bases y hasta las 14:00 horas del 22 de enero de 2026. No se admitirán propuestas a partir de esta fecha.

Cada propuesta deberá estar acompañada de una única referencia digital con la suficiente calidad musical y/o audiovisual que deberá de servir al jurado para el proceso de valoración y deliberación.

## Revisión de propuestas:

Una vez finalizado el plazo de presentación, se comprobará el cumplimiento de los requisitos y en su caso se solicitará la aportación de datos necesarios en un plazo máximo de 3 días laborales desde el día siguiente a la notificación.

## Propuestas excluidas:

Quedarán excluidas las propuestas que no cumplan con lo establecido en las presentes bases y/o que tengan contraídas obligaciones con terceros, que impidan la comunicación pública de dicha obra, durante el desarrollo del certamen.

07.

# ANTOLATZAILEAREN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

## Oinarrien betetzea eta gainbegiratzea:

EHMBE-ko Zuzendaritza Batzordeak uneoro zainduko du oinarri hauek betetzen direla eta lehiaketa gardentasun osoz garatzen dela.

## Sustapen-edukiak:

Saridunek ikus-entzunezko edukiak eta irudiak helarazi eta baimenduko dizkiote Euskal Herriko Musika Bulegoari, sustapen-helburuetarako soilik izango direnak.

## Datu okerrak:

Antolatzaileak ez du inolako erantzunkizunik izango proposatzaileak helarazitako datuak okerrak izango balira, edo/eta akatsen bat egongo balitz.

07.

# DERECHOS Y OBLIGACIONES DEL ORGANIZADOR

## Cumplimiento y supervisión:

La Junta Directiva de EHMBE velará por el cumplimiento de las presentes bases y por garantizar la transparencia del certamen.

## Contenidos promocionales:

Los/las participantes que resulten premiados/as facilitarán y autorizarán a EHMBE contenidos audiovisuales e imágenes, con finalidad exclusivamente promocional.

## Datos erróneos:

La organización no se hará responsable de los errores u omisiones que pudieran contener los datos publicados facilitados por las entidades o personas proponentes.

## Oinarrien aldaketa:

Puntualki, oinarri hauek aldatuak izan daitezke, horrela izatekotan www.musikabulegoa.eus webgunearen bitartez jakinaraziko litzateke.

## Konfidentzialtasuna:

Musika Bulegoak proposamenak egin dituzten pertsona, erakunde, artista eta lanen konfidentzialtasuna bermatuko du. Saritutako artistak  eta hauen lanak bakarrik argitaratuko dira ekitaldian.

## Modificaciones en las Bases:

Las presentes bases pueden estar sujetas a modificación, en cuyo caso se informará oportunamente a través de la web www.musikabulegoa.eus

## Confidencialidad:

Musika Bulegoa garantizará la confidencialidad tanto de las personas o entidades proponentes así como de los/las artistas y trabajos propuestos. El certamen hará públicos tan sólo a los/las artistas y sus trabajos premiados.

08.

# BALDINTZA EKONOMIKOAK

Artistaren hautagaitza formalak sortutako kontratu-erlazioak sortzen duen kontratu honek *intuitu personae* izaera du, eta, beraz, artista sarituak ezingo dio inori laga dokumentu honetako lehenengo klausulan adierazten den diru-saria.

Nolanahi ere, dokumentu honen lehenengo klausulan aipatutako zenbatekoa ordaintzeak Musika Bulegoak ordaintzeko betebeharra erabat betetzea ekarriko du, eta artistaren eta dagokion diskoetxearen edo agentziaren artean gerta litezkeen erreklamazio guztietatik aske geratuko da, ordainsariei, baimenei eta likidazio ekonomikoari dagokienez.

08.

# CONDICIONES ECONÓMICAS

La relación contractual suscitada por la candidatura formal del artista da lugar al presente contrato de carácter *intuitu personae*, en virtud de lo cual la cantidad económica estipulada en la cláusula primera de este documento no podrá ser cedida por la/el artista premiado/a en favor de tercero alguno.

En todo caso, el abono del importe mencionado en la cláusula primera de este documento supondrá el pleno cumplimiento por parte de Musika Bulegoa de la obligación de pago, quedando indemne y liberada de cuantas reclamaciones pudieran producirse entre el/la artista y su compañía discográfica o agencia correspondiente y referente a la presente cuestión de retribución, autorizaciones y liquidación económica

09.

# DATU PERTSONALEN ERABILPENA ETA BABESA

## Tratamenduaren arduraduna:

MUSIKA BULEGOA, helbidea: Zigarro plaza 1, Tabakalera 3 (Impact Hub), 20012 Donostia, harremanetarako helbide elektronikoa: info@musikabulegoa.eus.

## Tratatutako datuak:

Harremanetarako oinarrizko datuak: Taldearen izena eta erreferentziako pertsonaren edo, hala badagokio, managerraren harremanetarako datuak (izen-abizenak, telefonoa, posta elektronikoa), bai eta izena emateko formularioan emandako gainerako informazioa ere.

## Tratamenduaren helburuak:

a) Musika Bulegoa Sarien inskripzioa, parte-hartzea eta, hala badagokio, emakida kudeatzea, harremanetarako pertsonarekiko komunikazioa barne.
b) Sariari eta irabazleei edo finalistei zabalkundea ematea, oinarri hauetan aurreikusitako baldintzetan.

09.

# USO Y PROTECCIÓN DE DATOS PERSONALES

## Responsable del tratamiento:

MUSIKA BULEGOA, con domicilio en Plaza de las Cigarreras 1, Tabakalera 3º (Impact Hub), 20012 Donostia, correo electrónico de contacto: info@musikabulegoa.eus.

## Datos tratados:

Datos básicos de contacto: Nombre del grupo y datos de contacto de la persona de referencia o, en su caso, del/de la mánager (nombre y apellidos, teléfono, correo electrónico), así como el resto de información facilitada en el formulario de inscripción.

## Finalidades del tratamiento:

a) Gestionar la inscripción, participación y, en su caso, concesión de los Musika Bulegoa Sariak, incluyendo la comunicación con la persona de contacto.
b) Dar difusión al premio y a las personas ganadoras o finalistas, en los términos previstos en estas bases.

c) Interesdunak berariaz baimentzen badu, datuak BASQUE. MUSIC datu-basean sartzea eta talde edo artistaren informazioa https://www.basquemusic.eus/artists/webgunean argitaratzea.

## Oinarri juridikoa:

- a) eta b) letretan adierazitako helburuetarako: parte hartzeko oinarri hauek gauzatzea (6.1.b DBEO eta DBLO).
- c) letran adierazitako helbururako: interesdunaren baimena, zeina edozein unetan kendu ahal izango baita atzeraeraginik gabe (6.1.a DBEO eta DBLO).

## Datuak gordetzea:

Datuak gorde egingo dira deialdi hau izapidetzen den bitartean eta legezko erantzukizunei erantzuteko behar diren epeetan.
BASQUE.MUSICen basean sartutako datuak gorde egingo dira interesdunak datu horiek ezabatzea eskatzen ez duen bitartean, eta, nolanahi ere, gehienez 5 urtez, azken eguneratzea egiten denetik zenbatzen hasita.

## Hartzaileak:

Oro har, ez zaie daturik emango hirugarrenei, salbu eta legeak hala agintzen badu.
BASQUE.MUSIC datu-basean sartzea baimentzen bada, taldearen edo artistaren identifikazio-datuak eta harremanetarako datuak www.basquemusic.eus/artists/webgunean argitaratuko dira.

c) En caso de que la persona interesada lo autorice expresamente, incluir los datos en la base de datos BASQUE. MUSIC y publicar la información del grupo o artista en la web https://www.basquemusic.eus/artists/.

## Base jurídica:

- Para las finalidades indicadas en las letras a) y b): la ejecución de las presentes bases de participación (art. 6.1.b RGPD y LOPDGDD).
- Para la finalidad indicada en la letra c): el consentimiento de la persona interesada, que podrá retirarse en cualquier momento sin efectos retroactivos (art. 6.1.a RGPD y LOPDGDD).

## Conservación de los datos:

Los datos se conservarán mientras se tramite la presente convocatoria y durante los plazos necesarios para atender posibles responsabilidades legales.
Los datos incluidos en la base de BASQUE. MUSIC se conservarán mientras la persona interesada no solicite su supresión y, en todo caso, durante un máximo de 5 años desde la última actualización.

## Destinatarios:

Con carácter general, no se cederán datos a terceros salvo obligación legal.
En caso de que se autorice la inclusión en la base de datos BASQUE. MUSIC, los datos identificativos del grupo o artista y de contacto se publicarán en la web www.basquemusic.eus/artists/.

## Interesdunen eskubideak:

Tratatzen diren datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu, aurkaratu, tratamendua mugatu eta eramangarritasun-eskubideak balia ditzakete, bai eta emandako baimena kendu ere. Horretarako, honako helbide honetara jo behar dute idatziz: Plaza de las Cigarreras 1, Tabakalera 3 (Impact Hub), 20012 Donostia, edo info@musikabulegoa.eus helbide elektronikora, “Protección de datos - Musika Bulegoa Sariak” adieraziz eta identifikazio-agiri baten kopia erantsiz.

Era berean, eskubidea dute erreklamazioa aurkezteko Datuak Babesteko Espainiako Bulegoan (www.aepd.es), uste badute beren datuen tratamendua ez datorrela bat indarrean dagoen araudiarekin.

## BASQUE.MUSIC. datu-basea:

Izena emateko formularioan dagokion laukitxoa markatzen badu, artistak edo taldeak baimena ematen du emandako informazioa (izen artistikoa, estiloa, harremanetarako datuak eta formularioan adierazitako gainerako informazioa) BASQUE.MUSIC datu-basean sartzeko, https://www.basquemusic.eus/artists/web orriko “Artistak” atala elikatzeko.

Web orri honek Euskal Herriko artistak eta musika taldeak nazioartean sustatzeko funtzioa betetzen du. Helburu horretarako baimena borondatezkoa da, eta uko egiteak ez du baldintzatzen Musika Bulegoa Sarietan parte hartzea. Interesdunak edozein unetan eskatu ahal izango du datu-base horretako datuak aldatzeko edo ezabatzeko, 9. paragrafoan adierazitako moduan.

## Derechos de las personas interesadas:

Las personas cuyos datos se tratan pueden ejercer sus derechos de acceso, rectificación, supresión, oposición, limitación del tratamiento y portabilidad, así como retirar el consentimiento prestado, dirigiéndose por escrito a Plaza de las Cigarreras 1, Tabakalera 3º (Impact Hub), 20012 Donostia, o al correo electrónico info@musikabulegoa.eus, indicando “Protección de datos - Musika Bulegoa Sariak” y adjuntando copia de un documento identificativo.

Asimismo, tienen derecho a presentar una reclamación ante la Agencia Española de Protección de Datos (www.aepd.es) si consideran que el tratamiento de sus datos no se ajusta a la normativa vigente.

## Base de datos BASQUE.MUSIC.:

Si marca la casilla correspondiente en el formulario de inscripción, el/la artista o grupo autoriza la inclusión de la información facilitada (nombre artístico, estilo, datos de contacto y demás información indicada en el formulario) en la base de datos BASQUE. MUSIC, con la finalidad de alimentar el apartado “Artistas” de la página web https://www.basquemusic.eus/artists/.

Esta página web cumple la función de promocionar internacionalmente a las/los artistas y agrupaciones de música del País Vasco. La autorización para esta finalidad es voluntaria y su negativa no condiciona la participación en Musika Bulegoa Sariak. La persona interesada podrá solicitar en cualquier momento la modificación o supresión de sus datos de dicha base de datos en los términos indicados en el apartado 9.

10.

# SARIEN BANAKETA

Musika Bulegoa Sarien banaketa ekitaldia ekainaren 4ean burutuko da Miarritzeko Atabal aretoan.

MUSIKA BULEGOA Batzen gaituena.

*Donostia / San Sebastián, 2025ko abenduaren 9a.*

10.

# ENTREGA DE PREMIOS

El certamen de entrega de los Premios Musika Bulegoa tendrá lugar el 4 de junio en la sala Atabal de Biarritz.

MUSIKA BULEGOA Batzen gaituena.

*Donostia / San Sebastián, a 9 de diciembre de 2025.*

MUSIKA BULEGOA

Batzen
gaituena.